

Buru
ta
zioak



*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso du*

Fito Rodriguez

Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostian, 2010eko iraila

ISBN: 978-84-937658-4-2

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A

Azalaren diseinua: A & R de Gorostarzu

Azaleko argazkia: Fito Rodriguez

UTRIUSQUE VASCONIAE – Ategorrieta

Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel. 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

Banatzailea: BITARTE – 31195 Berriozar

(Nafarroa). Tel. 948-302239

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

*Baga, biga, higa,
laga, boga, sega,
zai, zoi, bele,
harma, tiro, pun*

(Herrikoia)

BAGA

***Non bakardadeaz nahiz
inguruaren beharraz
mintzatzan den...***

“Adierazpenen esanahiaz arduratuz gero,
hitzak, eurak bakarrik sortzen direla” zioen
Lewis Carrollek, espainiar inperioa
birrintzen hasi zen urtean hil zen idazle
ingelesak.

Halere, ez omen zuen hori esan, idatzi baizik.

Baina esana eta idatzia desberdinak dira.

Gizaki egiten gaituen gaitasuna,

gogoia garatzen duena,

mintzaira bada ere,

gizadia garatzen duena idazketa da,

ez hizkuntza naturala,

baizik eta kultura dena,

adierazpen dena kultura ez delako...

Agian, baldin eta idazketaren bidezko
adierazpenek norberaren ahalegin handiak
eskatzen badituzte,
ez dute merezi,
edo norberarentzat ez dute merezi,
edota norberak ez du merezi,
baldin eta adierazi beharrezkoa bat-batean
adierazteko gaitasunik ez badu.

*Baina bakardadea,
isiltasuna bezainbeste,
gizarteak ez du erraz onartzen...
legeak bidezkoak direla esan arren,
edo onartu arren,
edo idatzita utzi arren,
hotsen premia duen giza taldearentzako egoera
bitxi onartezinak izaten dira.
Irakurketak, aldiz,
norberaren bakardadea eta isiltasuna sortzen
ditu.
Sorkuntzarako ardatza dira.*

BIGA

***Zeinean hausnarketaz nahiz
komunikatzearen premiaz hitz
egin beharra dagoen...***

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
munduaz diogunaren, edo idazten
dugunaren,
zergatiaz ere arduratu beharra dago.
Horrela, huts egin ezkeru,
geure buruari
huts zergatik erratu garen
azaldu ahal izango diogu,
eta adierazpen eskasak
ezin izango du iraun betirako.

idazketaren bidezko adierazpenek
zientzia edo filosofia
sortzen dute.
Zientziak badaki,
eta filosofia,
aldiz,
ez dakigunaren jakintza da,
idatzita utzi zuen
Bertrand Russellek,
Stanfordeko filosofo matematikoak.
Literatura,
ordea,
idazketaren bidezko adierazpena,
ez da filosofia
ez eta zientzia ere...

*bakardadea, isiltasuna
hautatzeko, maitatzeko,
nahitaezko aurre-baldintzak izaten dira
eta,
arabieraz esaten den moduan,
adierazi behar duzuna
isiltasuna baino egokiagoa
izan ezean,
ez idatzi, ez esan.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
gogoan dugulako
esaten dugu.
Gogoaren ikerketa dela bide
idazten dugu.
Adierazpen dena
adierazi eta izkiratuaren arteko
ezbidea da.

idazketaren bidezko adierazpenak

**kultur ohituren ondorio
izaten dira.**

**Errepikapenaren errepikapenak
ondoriorik gabeko baldintzak
izaten dira.**

**Idazten diren guztiak
behar ez diren burugabekeria
izaten dira...**

norbaitek beretu arte.

bakardadea, isiltasuna

horren dira

hauskor,

horren

ahul eta makal

ezen

*hitz batek
apur litzazkeen.
Nahiz eta,
apurtezin
bihurtzen direlarik,
ahaltsuen indarra
bilaka daitezkeen.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
den-dena ikasteak ez du merezi.
Aukeran,
gustukoa da merezi duena.
Baina,
ikasi den guztiak merezi du
aukera datorrenean.

idazketaren bidezko adierazpenek

zerbaiten alde
edo
zerbait azaltzeko
baino
norbaiten aurka
egiten dute beti,
nahita nahi ez.
Beraz,
aitor dezagun
hurkoen aldean
baino
areago
ikasten dugula
arerioengandik.

bakardadea, isiltasuna

idazten duguna,

*esaten duguna,
adierazten duguna,
isiltasuna dela
bada ere
helarazten dugu.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
adieraztean,
adibidea
bidea da.
Adi,
gustuak helaraztea
ezinezkoa denez,
adierazi behintzat
adieraz dakizkioke
adiskideari.
Eta gustuoz idatzi,
eta idatzi
eta idatzi,
gustatu ez arren
gustukoaren bidean.

idazketaren bidezko adierazpenak

**eta aditutako guztia
ahazten denean,
geratzen den apurraz
idazten hastean,
orduan ari da
idazlea sortzen,
bakarrik eta isilik.**

bakardadea, isiltasuna

entzuteko, aditzeko

eta ahazteko,

eta idazteko,

eta irakurtzeko,

gogoratzeko denaz

ikasgaia

adierazteko.

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
dena pasaia baita,
pasadizo
eta
pasaera.
Pasartez pasarte
pasa egiten da
idatzia izan ez dena.

idazketaren bidezko adierazpenek

ahikorra dena,
iragankorra,
iraunarazten dute.
Amaitzen denari
balioa berrematen diona
idazkia da.
Esaterik ez dagoena
idaztea badagoelako

*bakardadea, isiltasuna
ulertzeko eta deskribatzeko.
Beti bada
iritzi deritzon jendea,
zarata ere bai.
Iritzia adimen bihurtzeko
oztopo.*

*Orok iritzi,
gutxik adimena jadetsi.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
aspergarria denetik ihesi:
idatzi.
Lotsagabe,
ahalketik eskapo,
zabarkeriatik urrun.
Txirtxilda,
doilor bezain adeitsu.

idazketaren bidezko adierazpenek

**ematen dutena
jakin behar da irakurtzen,
gozatzen.
Adieraren bidea
ez baitago adimenean,
gustuan baizik.
Hitzenganako gustuan,
isiltasunaren peskizan.**

*bakardadea, isiltasuna,
fikzioak dira.
Ezin baita inoren gogoan
isiltasunera behartu.
Inoren burua ez baita inoiz isilik
hark hala nahita.
Inor ez baita bere buruaren jabe.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
fikzioa idatzi beharra dago,
edo
irakurri beharra dago, bederen.
Aditzearen bidean
idazten denak
bezainbesteko ardura du
irakurri denak,
bizitzaren
balitza eta balegoak,
balekoak,
ulertzeko
balio dutelako.

**idazketaren bidezko adierazpenek
irakurle saiatuen premia dute.
Hauek gabe,
idaztea
zentzugabekeria litzateke,
testu esanguratsuenak ekoitzi arren.**

*bakardadea, isiltasuna,
barnekoa
behar bezala
azalarazteko.
Bestela,
ez idaztea
hobe.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
zure barneko guzti-guztia
agerrarazi nahian,
zureak diren
izen eta hitz denak
azalarazi arren,
idatziz gero,
fikzioaz
ari zara.

idazketaren bidezko adierazpenak
neurritz kanpoko hitzak
izaten dira beti.
Testuinguruz kanpoko testuak.
Urteen uretan,
esanahia
galdu duten
esaera itoak.

bakardadea, isiltasuna,

heldugabetasunari eusteko,

bada.

Inora

iritsi edo heldu

behar ez diren

*esaldiak idatzi ahal izateko.
Wertherrek Faustori
esan ez zizkionak
gogoratzeko.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
fikzio oro
autobiografikoa da.
Eleberriak,
hitz zaharrez eraikitzen dira.
Saiakera,
norberak
bere buruarekiko
egindako
solas dramatikoa
da.
Olerkia,
norberaren
olgeta nobela.

idazketaren bidezko adierazpenek

**ezin dute
idazleak
nahi duena
adierazi
baina
idazleak
dauzkan
kezkak
helaraz ditzazkete.**

*bakardadea, isiltasuna,
esaera zaharrek
ezin dute
hautsi.
Izugarría da.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
adierak
ez du balio
egia
aurkitzeko,
gezurra
agerian uzteko
baizik.

idazketaren bidezko adierazpenak

gogamenaren aurretik

doaz.

Idazketak ez baitu,

soilik,

gertatutakoaren berri

ematen,

idazleak berak

adierazi nahi duena

baino gehiago

adierazten baitu,

ezinbestean.

bakardadea, isiltasuna,

ez dira orainaldia

bakarrik,

gertakizunaren

*aurrekari
darelako ere,
bakarrik
hilko gara,
isilik
azkenean.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
irakurketak
osatu,
hitz-jarioak
zehaztu
eta
idazketak,
ziurtasunaren bila
abiarazten gaitu.

idazketaren bidezko adierazpenak

**lehia
izaten dira
gure adimenerentzat.
Batzuei
irabazten diegu,
beste batzuekin
parrean geratzen
eta
bakarren batekin
bat
egiten.**

*bakardadea, isiltasuna,
lasaitasuna ere badira,
lagunen arteko solasa*

*edo txolartea
izan ohi diren moduan.
Munduari buruzko
bizipenez
gozatzeko
paradak.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,

egia

eta

gezurraren

arteko

banaketak

ez du balio.

Literatura dena

egia

eta

gezurra

delako

hein berean.

idazketaren bidezko adierazpenak

bidezkoak

baino

areago

balizkoak

dira.

Edonor engainatzeko

balio dute,

idazlea

izan ezik.

*bakardadea, isiltasuna,
musika ere badira.
Doinu guziek
isiluneak baitituzte eta
kalakan ere,
eleen arteko hutsak
gozagarri
izaten baitira.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
ezkutuan
omen dagoena
eskura
izatea da
helburua.
Sinesgaia,
sinesgaitza
izan beharrean,
sinesgarri
bilakatzea da
irakurketaren
eginkizuna.

idazketaren bidezko adierazpenek
ez dute esanahia
azaltzen
hizkuntza jakin baten
izaera lausoa
baizik.

*bakardadea, isiltasuna,
mintzaira
bakoitzaren
isiluneak ere*

*hizkuntza horren
nortasun izpiak
dira.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
esapide bakoitzak
bere mugak
badituela
jakina da.
Idaztea,
bada,
irudimenari
mugarriak
ezartzea
litzateke.
Geurea
egitea.

idazketaren bidezko adierazpenak

idazkiak dira,
ez hitzak.
Hizketan dakienak
ez du
idazten jakin behar.

bakardadea, isiltasuna,

hitza edo taldea

ez bezala,

ez dira salatariak.

*Isilaldiek
ez bide dute
ezer salatzen
eta
isiltzea
eskubidea ere omen da,
ezer ez salatzea
baimenduta baitago.*

Adierazpenen esanahiaz arduratuz,
ezin da
inorentzat
idatzi,
zeren
idazleak
ez baititu
jarraitzailerik
bilatu behar,
dastatzaileak
baizik.

**idazketaren bidezko adierazpenak
kontzientziako
egoera moldatu
bezain
berezian
ulertu behar dira,
idazteak
kontzientzia arruntetik at
aritzea
eskatzen baitu.**

*bakardadea, isiltasuna,
egoera
ez normalak dira.
Irakurtzeko*

*egokiak
eta,
idazteko,
aproposagoak.*

HIGA

***Non klasikoez nahiz
esperimentazioaren beharraz
aritzen den...***

Baina esana eta idatzia desberdinak dira

eta
alferrikako hitzek
tutik ere balio
ez duten bezala,
idatzitako guztiak,
berriz,
balio du.

norberaren ahalegin handiak

behar ditu idazkuntzak.

Egilearen eskubideak

oinordetu arren

idazleak ez du

oinordekorik

eta

beraren ondarea,

etengabe,

ahituz doa.

gizarteak ez du erraz onartzen

idazlearen nahigabea.

Zinezko idazlea,

esapide zaharren artean

berriaren bila

*ari da
betiere.
Gaizpidea da,
eta zalaparta maite ez arren
iskanbilatsu
izaten da
nahi gabe.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira

Gehienetan,
pentsatu gabe
hitz egin ohi da.

Idazteko
pentsatu beharra dago,
idazkera
pentsatu aitzin
badoa ere.

norberaren ahalegin handiak...

**hitz egin ahal izateko
ez da asko
ikasi beharrik.**

**Berezkoa baita
garatu beharreko
mintza ahalmena.**

**Idazteko,
aldiz,
ezin da
inolako gaitasunik
garatu
ezer ikasi ezean.**

*gizarteak ez du erraz onartzen
bekatuak alboratuz
eta
egunekotasunaren
zamatik harago
betiko
istorioak ehunduz
doana.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira

Hitz egiteak

ez du

asko balio.

Idazteak,

berriz,

balio ez badu:

gureak egin du.

norberaren ahalegin handiak...

erraz

idazten duenak

balio duela

uste du.

Erraz idaztea

ez da,ordea,

behar bezala

idaztea.

gizarteak ez ditu erraz onartzen

idazki zailak

honenbestez,

idazle batzuek

etorkizunerako

idazten duten bitartean,

beste batzuek,

*iraganaldirako
idatzi ohi dute.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira

Jende askorekin
hitz egiten
bada ere
bakar batzuentzat
idatzi ohi da.
Baten batek,
beretzat soilik
idatzi izan du,
eta,
halere,
balio dio.

norberaren ahalegin handiak...

**erraz idazten duenak,
balekoa izan arren,
gerta daiteke
ez baliokoa.**

**Idaztea maite duena
da idazlea,
nahiz eta
idazteko
ez jeniorik
ez eta
behar adinako trebeziarik
ez eduki.**

gizarteak ez ditu erraz onartzen

*beren betebeharra
behar bezala
konplitzen ez dutenak
baina norberari,
duen zaletasuna,
amodioa bezainbeste,
onartu nahi ez izatea
ezinezkoa zaio.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira

Nota hartzea,
berez,
notizia ematea
bezala,
“noscere”
aditz latinotik
erakarritako
hitzak
direnez,
ezaguera
dute adieran.

norberaren ahalegin handiak...

**ez du ziurtatzen
idazkia, irakurria
izango dela,
ezin du ziurtatu
ustezko irakurlea
edota irakurleria,
baina idaztea
ezaguera berritza
den neurrian,
ezaguera berritza
den neurrian,
gauzatzen den**

**bakoitzean
da ezaguera berri.**

*gizarteak ez du erraz onartzen
berba eta izkribuen arteko borroka,
baina hori ere
argudio bide etengabea
eta ezaguera
da.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira

Lokuzioak

eta

idazkunak

ez dira gauza bera.

Izan ere,

biak ala biak

kontraesanak

izaten dira,

horregatik

sortzen dute

ezagutza.

norberaren ahalegin handiak...

eta etsipenak

omen dira

idazkuntzaren

bidaideak.

Asko idatzi da,

aski idazten al da?

Betiko noten arabera

bestelakoturiko interpretazio

berriztatua

izaten baita idazkera.

*gizarteak ez du erraz onartzen
borrokalarien adiskidetzea,
kontrakoa esan arren,
aurkakoa zabaldu ohi bada ere.
Idazketa eta irakurketa batuz gero,
esana, idatziarekin bat egiten duen,
idazketa, irakurketa bihurturik,
irakurkera esanguratsua ari da zabaltzen,
gizarteak maite ez duena.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira

Eta gizarteak
literaturarekin bat
egiten duela dio,
irakurzaletasunari
munta ematen
ez badio ere.

Baina
literatura
idazten
segitzen bada,
ez da izaten
gizarteagatik,
norbera den
irakurlearengatik
baizik.

norberaren ahalegin handiak...

**idazterakoan,
ereduak sortzen ditu.
Denentzako adierazpideak,
bakar batzuen onura
bilatu beharrean
denona dena
ulertzeko eta
maitatzeko
modua.**

*gizarteak ez du erraz onartzen
idazleen idazle izan nahi izatearen nahikaria.
Harroputzaren irudia
omen dute lumadunek.
Mundua modu desberdinetan
irakurri ahal izatea
besterik ez baitute nahi.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira

Elkarrizketa guztiak ere

desberdinak dira,

testu denak

diferenteak direlako.

Baina irakurketaren

zabaltzeak,

ohiko idazketa motak

baztertuko zituelakoan,

gizarte pribilegioak

baztertuz,

irakurzaletasuna

bazterrarazi zuen.

norberaren ahalegin handiak...

ez du irakurketaren

gozaldia

zapuzten.

Atsekabea

amaiturik

hasten dena,

jakinmina

baretzean

loratzen dena,

testuaren plazera

izaten da,

norberarena,

unean unekoa,
minaren ondorengoa.

*gizarteak ez ditu erraz onartzen
estetikaren gozaldiak.
Denbora galduaren bekatuak.
Idazlea, ordea, bekatu horren bila dabil,
berez.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira
nahiz eta
gogoko
abestia entzutea
edo
lagunekin solasean
aritzean
irakurtzea
bezain
gustukoa
izan.

norberaren ahalegin handiak...

**irakurleak aurretiazko
parte hartzea,
eta alegia egitea
dakartza,
alegia.**

*gizarteak ez du erraz onartzen
denbora ahitzen duen
gizabanakoaren
gozaldi estetikoa.
Nekez
parteka
baidaiteke*

*sekulako
plazera
dena,
norberarena,
besteen orbana,
errepikatu
ezin dena.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira
besteen esana
edo
bestearen izkribua
berriz ere
aitatzerakoan,
gaizki ulertua
modu aldrebestuan
adierazten da.
Eta hura da,
ahozko literatura
edo, agian,
literatura bera.

norberaren ahalegin handiak...

**lorpena dakar,
eta hura da
gozaldia.
Nola lortu
lorpena,
aldiz,
nekez
azaltzekoa da.**

*gizarteak ez du erraz onartzen
testuenganako hurbilpenek*

*norberaren araberakoak
izan behar dutela.
Norberaren barne munduak
agintzen du bizipenen ildoko
irakurketen hautaketa
eta idatz gogoa,
nahiz eta
gogoz kontra ikasten dugun idazten.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira
eta horretan
eskarmentu
asko badago,
eskarmentua baita
literaturaren abiagunea,
aurreikuspenak
helbururako
pizgarriak
badira ere.

norberaren ahalegin handiak...

**ezinbestekoak izaten dira
gizarte bakoitzak
modu desberdinez
lantzen baititu
irakurketa
eta idazketa.**

gizarteak ez ditu erraz onartzen

*eskolaz kanpoko
literatura ariketak
baina
desiraz kanpoko
idazketa behartuak
eta*

*plazeraz aparteko
irakurketa bortxatuak
ulergaitzak ez ezik
alferrikakoak
izaten dira.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira
horregatik
modu desberdinean
ikasi behar dira
nahiz eta
horretarako
ezein metodok
ezin izango duen
inoiz
ordezkatu
banako bakoitzaren
ametsezko
gaitasuna.

norberaren ahalegin handiak...

**kultur ohiturak
eraldatzea
eskatzen du.
Idaz-irakurketaren
sustapenak
ez du
denbora-pasen
premiarik
testu onena
baizik.**

gizarteak ez du erraz onartzen

sinesgarria ez dena.

*Eta ezin da
irakurketan sinetsi
adimen sakabanaketan
oinarrituriko
gizartean.*

Baina esana eta idatzia desberdinak dira

Lehenak

ez du

ideien arteko

lotura logikoaren beharrik.

Bigarrenak,

berriz,

ezin du

ideien sakabanaketa onartu.

Biak mintzo dira.

Hizkuntza,

biena da.

norberaren ahalegin handiak...

eskatzen ditu

batere emankor

ez denak:

irakurketak.

Soila bezain isila,

ezin da irakurketa

suspertu

balekoa delakoaren ustean,

edo

ustekabeak ere

handiak izango dira.

*gizarteak ez du erraz onartzen
baliagarria ez dena.
Irakurzaletasuna
ezin da
suspertze egitarauen bidez
landu.
Egonarria
da
oinarria.*

LAGA

***Zeinean
logofonozentrismoaren eta
idazkuntzaren arteko
kontresanez izkiriatu nahi
den...***

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira
baina
hitzak elkartzea
da
sorkuntza literarioaren
zeregina.
Irakurleak eta idazleak
biltzea
da
irakurzaletasunaren
bidea,
malkorra
bezain
malkarra.

adierazteko gaitasunik ez badu
idazleak bilatu egiten du,
hitz egiteko
gauza
ez bada ere,
azaltzeko grina
elikatuz
gizentzen da
idatzi nahi duena.

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak dira,*

*pizgarriak,
gonbiteak,
bultzadak,
goatzeak,
saiatzeak...*

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira

hitz egiteak
laguntzen du
idazten,
baina
ez idazteko ere
aitzakia
izan daiteke.
Irakurtzeak,
berriz,
literaturaren
altzora
garamatza,
amultsuki.

adierazteko gaitasunik ez badu

**irakurtzen
goza,
gogoetan
ase,
eztabaidan
osa.**

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak dira.*

Besteen testuak irakurriz

*norberak
kasu egiten dio
bere buruari,
eta
nork bere buruaz
gehiago
daki,
besteen idazkien bidez.*

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira
eta idazki bakoitzaren
irakurketak ere
bakar bezain bana
izaten dira,
esanahiak
berreskuratzeaz
harago,
irakurleak
denbora berreskuratu
nahi izaten baitu

adierazteko gaitasunik ez badu

**ere
ezezaguna
ezagutzeko
dabil
ibili
irakurlea
testuetan
eta barna.**

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak dira*

*eta
testuen birmoldatzaile*

*bihurtzen dute
irakurtzeko
gosez dabilena,
sentimenduen
esploratzaile,
ezezagunaren
aurkitzaile.*

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira
eta
euren arteko
elkartze
ez ohikoek
arruntasunaz
kanpoko
interpretazioak
sorrarazten
dituzte.

adierazteko gaitasunik ez badu

**idazleak
ahalik eta
liburu gehien
ezagutu
beharra
du,
dohainik,
ez
ezeren bila.**

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak dira*

*testuekiko
kontaktuari*

*beldurrik
izan gabe,
berauengandik
hurbil
eta
prest
beraien laguntza
usadio
bilakatzeko.*

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira
eurenganako
gertutasuna
aldiz,
kanpotik
dator,
eraginda
edo
garatuta,
baina
bidea
eman
behar
zaio
nolanahi ere.

adierazteko gaitasunik ez badu

idazleak
hura
arrastora
eramateko
premia
du,
bederen,
eta testuen
itzalean,

beraien
anparooan,
lasai
daiteke.

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak dira
irakurketa gehiagorako
iturri.*

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira
poesia,
eta literatura oro har,
jolasa da,
pasioaren mundua,
eta gainera
mundu horretako
biztanleriak
badaki, jakin,
beste munduak
badaudela, egon.

adierazteko gaitasunik ez badu

idazleak

heldua da.

Helduek jolaserako

gaitasuna

galdu

ditenez,

heldutasuna

galtzea

da

literaturarako

bidea.

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak*

*izaten dira
heldu aurreko
hautzaroaren
gozaldien
oroitzapenak
berreskuratzen
lagungarriak
direlako.*

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira

jolasa

haurren artean

bezala,

literatura

hautzaroko

bizipenen

ordezkoa

suertatu ohi da.

adierazteko gaitasunik ez badu

idazlearen

barne

tirabiren

metaketa

ez da

askatuko,

eta

ezin

izango da

gozaldiaz

probestuko.

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak*

*lirateke
haur garaiko
jolas
mozorratuak
baitira.*

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira
eta jolasaren ezaugarriak
bateratuz
doaz,
mundutik kanpo geratzea,
zentratzea,
isolatzea,
literaturaren
ezaugarriak baititu.

adierazteko gaitasunik ez badu

idazleak
mundua
ezkutatu
beharra
du
eta,
jostatzean bezala,
hitzak
nahiz
gauzak
lehengai,
mundu berriak
sortu
behar dira.

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak dira*

*helduen
jolasak
baitira,
eta haien
ezaugarriak
ikasi behar dira.*

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira
baina literatura
ez da
azalkeriaren ariketa,
haurrak
serio jolasten bezala
behar du
testuak
errazkeria
gainditu.

adierazteko gaitasunik ez badu

**idazleak
ez du bereiziko
gozaldia
eta
ikuskitzuna,
ez eta
irudimena
eta
nagikeria
ere.**

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak*

*ezarriz,
maite dira
jolasa
baina
haren gozaldiak soilik
ez du
literatura
sustatuko
idaz-irakurzaletasunak
irakurtzeko
gogoan
oinarritzen baitira.*

Hitzak, eurak bakarrik sortzen dira
baina, aspaldidanik
idatzi denez,
idazle klasikoak
daude
eta
idazle berriak ere,
modaz harago
dagoenak,
berdin maiteko du
bi motatako
hitz elkarketa hau.

adierazteko gaitasunik ez badu

idazleak
klasikoengana
jotzea
lagungarri
suertatzen da.
Haiek gogoan,
hietetaz gogoeta eginez
gauzatzen da
heziketa literarioa.

*Irakurketak, aldiz...
sorkuntzarako ardatzak dira*

*berehalako gozaldia
bilatzen duenak,
sentibera bezain hunkigarria den
irakurraldia maite duenak
ez du, agian,
klasikoen eskaintzan
atsegin
hartuko.*

BOGA

***Non idazteko jardunean
olgetaren nahiz diziplinaren
premiaz hitz egiten den...***

Gizadia garatzen duena idazketa da
eta iraganeko
egile klasikoen
proposamenak
egungo egile
modernoengandik
hain urruti
ez daudela
gogoraztekoa
da.

**baldin eta adierazi beharrezkoa bat batean
adierazteko
bada,
egin ohi den
irakurketen hautaketak
baldintzatuko du
adierazpidea,
egile klasikoen
ezaguera
nekez
lort baitaiteke
hezkuntzatik at.**

heziketa legeek bidezkoak direla esan arren

*ez dute
ahalbidetzen
egile
nahiz
hizkuntza
klasikoen
behar
bezalako
ezagutza.*

Gizadia garatzen duena idazketa da
eta eskolan
idazketaren bidez ikasten da.
Ezagutzen den
lehenengo eskola
idazkariena zen,
eta hartan,
gainerakoetan bezala,
kontrakoa eman arren,
ikasten zen
guzti-guztiak
balio zuen.

**baldin eta adierazi beharrezkoa bat batean
adierazteko**

**bada
ez du
asko
eskatzen
baina
ahaleginak
beti
balio du,
ez emaitzak.**

legeak bidezkoak direla esan arren

ondorio gaiztoak

dituzte

baina

halere

arerioengandik

ikasi beharra dago,

legezkoak

badira ere.

Gizadia garatzen duena idazketa da
baita beste bizitzak
irudikatzeko
eta bizitzeko
aukera ere.
Balizko bizipen
haien bidez
dauzkagun
mugak
gaindituz doaz
gizartea
garatuz doan heinean.

**baldin eta adierazi beharrezkoa bat-batean
adierazteko**

**bada,
ezin izango da
inoiz
isilik geratu.
Betiko moduan
adierazitakoari
muzin egiten
ez bazaio
bilatzen den
adierazpidea**

ihesi joango da,
ez da profitatuko.

legeak bidezkoak direla esan arren

*hizkuntzak,
bere legeak eduki arren
berez, mugarik ez duenez,
hizkuntzaren jostaketan
ezin da ezer debekatu.*

Gizadia garatzen duena idazketa da
eta egungo gizartea
idazketaren
eta
irakurketaren
faltan badago ere
haren falta
sumatzeak
garatu egiten gaitu.

**baldin eta adierazi beharrekoa bat-batean
adierazteko**

**bada,
ez diogu
poto egiteari
behar besteko
garrantzia
emango,
eta
ez dugu
ezer ikasiko.**

legeak bidezkoak direla esan arren

*beraien hutsek
ahalbidetzen dute*

*zuzendu beharrezkoa
behar bezala
zuzentzea,
ezin baita
inoiz huts egin gabe
ezer aldatu,
ezer ikasi.*

Gizadia garatzen duena idazketa da
irakurtzen dena
ez da
inoiz hiltzen,
garaikide
bihurtzeaz gain
inoiz
geroan
bihurturiko
iraganaren
sendagai
zendugaitza
izango
baita.

**baldin eta adierazi beharrezkoa bat-batean
adierazteko
bada
testuinguruz kanpo
zentzugabe
bihurtuko da,
burugabe
eta
adigaitz
betiko.**

legeak bidezkoak direla esan arren

*literaturan
ezer ez da zuzena betiko
hobetzeko bidea dagoen
adierazpide baizik.*

*Etengabe
hobetu
daitekeen
hizpidea da literatura.*

Gizadia garatzen duena idazketa da
literatura
eta
bizitzaren
arteko
zubia
irakurlea
bera
da,
esploratzaile
nekatu
hau,
alegia.

**baldin eta adierazi beharrezkoa bat-batean
adierazteko**

**bada
ezin da
gizarte portaera
neurtu,
ez eta
horri buruz
juzkurik egin,
ez estetikan
ezta
etikan ere.**

legeak bidezkoak direla esan arren

arauen aplikapena

egiteke dago.

Testu guztiek

badute, eduki,

beren aplikapena

errealitatean.

Gizadia garatzen duena idazketa da
eta idazkiak
irakurlea
eragiten du,
irakurleak
testua
bere erara
moldatzen duen
hein berean.
Batak
besteari
erantzukizunak
eskatu
ohi
dizkio.

**baldin eta adierazi beharrezkoa bat-batean
adierazteko**

**bada,
esangura
bakunekoa da,
testuinguruaren
arabera,
baina idatziak
esanahi desberdinak
izaten ditu**

irakurle
berberarentzat,
unean-unekoak.

legeak bidezkoak direla esan arren

*literatura
ez da legea
eta haren emariak
sailkaezinak
izaten dira.*

Gizadia garatzen duena idazketa da
baina
idatzitakoa
laburtu,
ikertu
edo
komunikatu
nahi izatea,
ezer galdu gabe
nekez burutu daitekeen
ahalegina
izaten da.

**baldin eta adierazi beharrezkoa bat-batean
adierazteko**

**bada,
egoera desberdinetan
modu desberdinez
hitz egingo da
eta
hizkuntzaren
erabilera
literarioak
ez du
ezertarako
balioko.**

*legeak bidezkoak direla esan arren
literaturaren munduan
gaiztakeria
heroikoa
izan
daiteke
eta
heroia, gaiztoa.*

Gizadia garatzen duena idazketa bada
irakurlearen
eta
idazkien arteko
eragozpenak
gainditu
behar ditu
irakurketaren
esperientziak.

**baldin eta adierazi beharrezkoa bat-batean
adierazteko
bada,
ez dago
ulerkuntzarako
oztoporik,
beraz,
literaturarako
tokirik
ez dago**

legeak bidezkoak direla esan arren

*literaturak
bizitza
arruntean*

*ikusterik
ez
dagoena
erakusteko
balio du.*

SEGA

**Zeinean irakurketa nahiz
idazketa era bertsuan
zuzendua eta askea egin
behar diren...**

Kultura dena,
ez da ulertzen,
testuak
ulergarriak
izan daitezke
eta
irakurketak
kultura
testu moduan
ulertzen
lagun dezake.

ez dute merezi
irakurketa bortxatuek.
Mundua
ulertzen
laguntzen duen
irakurketa
ondorioa
da,
ez
hastapena.

onartezinak izaten dira

bukatutzat eman

daitezkeen

irakurketa

ikasketak.

Denok

ari baikara

beti

irakurtzen

ikasten.

Kultura dena,
ez da soilik
mezua,
letra mota,
paragrafoen banaketa,
atalen artekoak,
tipografia,
eta abar ere
ulertzeko
lagungarri
beharko dute
izan.

**ez dute merezi
irakurlearentzat
interesgarriak
izaten
ez diren
idatziak.**

*onartezinak izaten dira
inori irakurarazten
zaizkion baina
inor horren*

*interesa
pizteko gai ez diren
testuak.*

Kultura dena,
gozagarria
bezain
sufriarazgarria
izaten da,
pairamen
eta
plazent,
baina irakurtzeko
beldurrak
eta
porrotak
baino gehiago
aurreikuspen
laketgarriak
dira akuilu.

ez dute merezi

**liburuek
gorrotoa
ez eta
aiherra ere,
irakurtzearen
higuina
ordezkatzeko
lehenengo**

liburuak
hura maitatzen
jakin behar du
erakutsi.

*onartezinak izaten dira
irakurketa gogaikarri
bihurtuko duten
jarrera agindu-hausleak,
hitz-jaleak.*

Kultura dena,
joera da,
erakarmena
eta xarma,
harrera
eta txera.
Liburuekiko
abegikortasunak,
testuekiko
atxikimenduak
kulturaren kultuan
txertatzea dakar.

ez dute merezi
bihotz-bihotzez
burutzen ez diren
irakurraldiak
mundua
irakurtzen
aritzeko
ikurraren
eta
narrazioaren
bihotzetik
irakurtzen
jakin behar baita.

onartezinak izaten dira

*barneko
bilakatzen
ez diren
irakurketak.*

Kultura dena,
konplizea da.
Konplot-laguna da,
irakurketen bidaidea.
Egunerokotasunaz kanpo
bidaiatzeko gonbitea da,
irakurketak partekatzea,
balizko mundu haietatik
ibiltzea, luze edo motz,
amaierarik ez duen
odisean.

ez dute merezi

**eskoletan
liburuak
lan-tresnatzat
soilik
hartzen dituzten
irakasleek.**

onartezinak izaten dira

*liburuen alde
egin obi diren*

*zabalkundeak
ustezko
zabaltzaileak
liburuekiko
harremanik
erakusteko
apenas
gai izaten
ez diren.*

Kultura dena,
ezin da ezkutatu,
ez eta
disimulatu ere.
Itxurati dena,
zuria,
toleskerian dabil,
tolerantea bada ere.
Itxuraz,
itxuroso behar du
irakurzaletasunaz
itsutu behar ez duenak.

ez dute merezi
jarraipenik
ez duten
irakurraldiek.
Jauzika
eginikoez,
alda-maldakazkoek,
ezin dute
malkarra dena
gainditzeak
ematen duen
gozaldia
eduki.

onartezinak izaten dira
irakurketa
apetatsuak,
denbora-pasa
hutsak
irakurtzeak
kateatu egin behar baitu,
askatu ordez.

ZAI

Non irakurzaletasuna sustatzeko eskolaren eta etxearen giroa nola erabili beharra dagoen azaltzen den... (ustez, behintzat)

Ez hizkuntza naturala

literaturak
hizkuntza arrunta
bortxatu behar du,
ohiko idazketak
komunikatzeko
balio du,
literaturak
gogoetarako,
gogamena
gogobetetzeko,
gogokoari
gogor eusteko.

norberarentzat ez du merezi

**saiatzeak
zailtzeko
ez bada.**

**Liburutegiak
betiko tokian
daude
baina
gero eta zailagoa
izaten da
haraino joatea.**

onartu arren
liburuak
betikoak direla
liburuak etengabe aldatuz doaz,
beraz,
hauenganako bidea
ez da betirako
ikasten.

Ez hizkuntza naturala

zeren eta
poesiak
ez baitu
adierazten
sentimenduz
ez eta
ideiaz ere
hitzez baizik.

norberarentzat ez du merezi

**poesia idazteak
poesia idatzia
ez baita ikusten,
ez baitago
begi bistan
hitza
besterik
ez dena.**

onartu arren

*poetak
gertuko hitzak*

*erabili ohi dituela
gogoeta
ikusezinak,
ikastezinak,
azaldu
ahal izateko.*

Ez hizkuntza naturala

irudi
poetikoak
ulertzeko,
ez azaltzeko,
ahalegintzea
badago ere,
hura
ahalegin
poetikoa...

norberarentzat ez du merezi

**azaltzeak
edo
adierazteak
guztiz
ulertzen
ez duena,
aurretik
barneratu
behar baitu.**

*onartu arren
barneratzearekin
ez dela
ezer ikasten,
ezin dela
ezer irakatsi,
erakutsi baizik,
hitzez
soilik.*

Ez hizkuntza naturala
mintzaira
arruntaz
harago,
liburutegietan,
liburu dendetan,
liburu denetan
ari da
literaturzaletasuna
hazten eta hezten,
esparru itxietatik
barne esparruetara
hedatzen.

norberarentzat ez du merezi

**liburu onak
ez irakurtzeak,
ez eta
ikasketarako
irakurtzeak ere,
irakurketa dena
irarketa askea,
barnea iratzartzea
baita.**

onartu arren

*irakurtzeko
toki aproposak
daude,
irakurlearen
zortea
zoria da,
sortzeko
gaitasunaren
habia.*

Ez hizkuntza naturala

nahiz eta
liburuekiko
maitasuna
inguru
kulturallean,
ez naturalean,
sortu.

norberarentzat ez du merezi

**maitasunik gabe
irakurtzeak
liburuekiko
lotura
afektiboa
izaten baita
baina
nekez irakurriko du
jardun horretan
eroso
ez dagoenak.**

onartu arren

*irakurtzea
ikastea ere*

*badela,
irakurleak
ikaslea
baino
goiztiarragoa
behar du.*

Ez hizkuntza naturala

baina
idazleak ezagutu,
irakurleekin partekatu,
irakurketak banatu,
idazketa landu,
liburuak trukatu,
eta haietaz guztiaz
hitz egin,
naturalki,
horrek sortu
eta
garatu
egin ohi du
irakurzaletasuna.

norberarentzat ez du merezi

**desio
ez duena
eskuratzeak.
Irakurzaletasunak
literaturaren desira
dauka
oinarritzat.**

onartu arren

*liburuak ez direla
ametserako
iturburu bakarrak,
zinemak
sare birtualak
eta munduak
liburuaren irakurketaren
bertutea
behar dute oinarrian.*

Ez hizkuntza naturala
mundu birtualean
dago
irakurzaletasunaren
habia eta abia,
esperientziatik
abiatu
eta
hartan sakondu
eta landu.

norberarentzat ez du merezi

**hausnar-gai
ez denak
denbora-pasa
partekatzeak
elkarrizketa
sortzen badu ere
ez du
pizten
barne mintzoa.**

*onartu arren
irakurketa guztiak
ezin direla*

*ernegai izan,
antzuak ez direnak
izaten dira
mundu berrietan barna
ibiltzeko baliagarri
bakarrak*

ZOI

**Zeinean idazteko, saiakera
bezainbeste, fikzioa erabili ohi
dela agertzen den...**

Gizaki egiten gaituen gaitasuna
sustatzea
litzateke
gizateriaren
helburua,
irakurzaletasuna
bultzatu,
literatura
sustengatu,
idazketako joera
babestu,
dena eginkizun...

Agian
utopia da,
demokrazia
moduko
xede
helduezina
hura
heldu-zina
bada ere.

*idatzita utzi arren
ez du ematen*

*hitzak gauza
bihurtzen
direnik
ez eta
helburuak
lorpen ere.*

Gizaki egiten gaituen gaitasuna
mundua
eraikitzea
da,
sortzaile
garen
neurrian
jainko
fedegabe
bilakatuta
gaude,
irakurleok,
idazleok...

**Agian
idazleak
besteen hitzak
besterik ez
du erabiltzen,
baina
bere barne munduak
besteei
eskaintzearekin batera,
ari da
mundu berriak
sorberritzen**

sor egiten,
sorgintzen.

idatzita utzi arren

*irakurleak
eraiki behar du
irakurritakoaren
esanahia.*

Gizaki egiten gaituen gaitasuna
gizartea da,
elkar trukatzea,
eta irakurketa,
partekatzea da,
testuaren
eta
irakurlearen
arteko
gaineraturiko
erantzuna,
erantzukizuna

Agian

edozein literaturak
iruzkinak behar ditu,
ulerkera desberdinak
eta
iritzi kontrajarriak,
ez,
ordea,
mespretxurik
edo
zentsurarik.

*idatzita utzi arren
irakurlearen
erantzuna
da
literatura
biziberritzeko
modu
eraginkorrena.*

Gizaki egiten gaituen gaitasuna
adiskideak,
gogaide,
irizkide,
izatea da.
Irakurketak
konpai,
lagun
egiten
gaitu.

Agian
irizkide beharrean
lehiakidearen
edo
kontrarioaren
iritzia
ezagutzeko
balio du
irakurketak,
edota
eztabaidatzeko,
iritziaz aldatzeko ere
balio lezake,
mundua

konplexua dela
ohartarazteko.

*idatzita utzi arren
bakoitzaren ustea,
bestearen idazketaz
jabetzean datza
idazkeraren ariketarik
behinena.*

Gizaki egiten gaituen gaitasuna

Bakardadea

ez bada ere,

haren premia

bada

behar bezala

irakurri ahal izateko.

Baina irakurketaren

funtsa

norbanakoaz

harago doa,

bestearengana

beti.

Agian

Besteak dioena

ulertu gabe

eta hura

bestearekin

konpartitu ezean

ezin esan

testuez

gozatzerik

dagoenik.

*idatzita utzi arren
bestearena,
besta harena,
izaten da
testuaren zentzua,
elkarrenganako
baita beti
beto gabeko
irakurketa esanguratsua.*

Gizaki egiten gaituen gaitasuna

Esperientzia da:
gainerako eskarmentuak
ez bezala,
gogortu ordez
malgutu egiten du,
juzkuak leundu,
aurreiritziak kamustu,
erantzukizunak
gizaki egiten gaitu.

Agian

erantzuteko
ahalmena ere
ezin da
berezkoa izan,
ikasi egiten da
eta, horretako,
irakurketa
litzateke
hura trebatzeko
eskola askea.

idatzita utzi arren

*irakurleak
hartu behar du
faltan duenaren
kontzientzia
eta horri ekin,
orri orri,
pazientziaz,
hutsuneak
betetzearen
bila.*

BELE

**Non idazkerak, ikasteaz gain,
jakin-minaren premia baduela
hitz egiten den...**

Gogoa garatzen duena

irakurketa

nahiz

idazketa

izan,

batak

bestea

elikatzen

du

beti.

ez du inork merezi

idaztea

aldez aurretik

irakurri duelako,

idaztea

laket duenak

izkiriaturako du,

etsipenagatik,

pozagatik,

beharragatik...

idazketa

*hautatzeko
erantzunak,*

*ihardespénak
duen
garrantziaz
ohartzea
ezinbestekoa
izaten da.*

Gogoa garatzen duena

joera
izaten
da,
jaidura,
enjogidura,
engaiamendua.

ez du inork merezi
behartzea.
Besteak ulertzea,
itzultzea,
besterenganatzea,
izan ohi da
liburuen festa,
irakurketaren ospakizuna,
idazketaren gozaldiaz
dastatzeko
parada
onena
desiraturiko
irakurketa
izaten da.

*hautatzeko
asmatu
omen ziren
aphoriak,
esanak eta kontraesanak,
aporiak edo aforiak,
apoarenak edo afonikoarenak.*

*Baina bakardadea,
eta isiltasuna halaber,
gizarteak ez du erraz onartzen...
legeak bidezkoak direla dioen arren,
edo onartu arren,
edo idatzita utzi arren
Hotsen premia daukaten giza taldearentzako
egoera bitxi
onartezinak izaten baitira.
Irakurketak, aldiz,
norberaren bakardadea eta isiltasuna sortzen
ditu. Sorkuntzarako ardatzak.*

“Adierazpenen esanahiaz arduratuz gero,
hitzak, eurak bakarrik sortzen direla ” zioen
Lewis Carrollek, espainiar inperioa birrintzen
hasi zen urtean hildako idazle ingelesak.
Halere, ez omen zuen hori esan, idatzi baizik.
Baina esana eta idatzia desberdinak dira.
Gizaki egiten gaituen gaitasuna,
gogoia garatzen duena,
mintzaira bada ere,
gizadia garatzen duena idazketa da,
ez hizkuntza naturala,
kultura dena,
adierazpen dena kultura ez delako...

Agian, baldin eta idazketaren bidezko adier-
azpenek norberaren ahalegin handiak
eskatzan badituzte,
ez dute merezi,
edo norberarentzat ez du merezi,
baldin eta adierazi beharrezkoa bat-batean
adierazteko
gaitasunik ez badu.

“Gutxi irakurri duenak
bizirauteko ezinbestekoak diren
aipamen klasiko guztien jakinduria
berrasmatu beharra ohi du.”

Stanislaw Jerzy Lec
(*Aburu burugabeak*)

“Pentsatzeak ez dakar ebazpen zehatzik,
berez kontraesanetan
(aphorietan) murgiltzea baita ”
Georges Steiner
(*Hamar arrazoi pentsaeraren tristurarako*)

*“Poesia
pipa
bat
da”*

*Paul Eluard
(Aphorismoak)*

Literaturan eta munduan
adiskide jakitun bezain leiala
izan den Joxemiel Bidadori.

Fito Rodriguez
Venezia / Donostia / Geneva
2009-2010

IDEIAK

BILDUMA

1. Fito Rodriguez: *Jerusalem. Xalimen hiria*, 2008
2. Eneko Bidegain: *Gerla Handia, muga sakona*, 2009
3. Fito Rodriguez: *Buru ta zioak*, 2010